



Upaingoa-tik mundura
Juan Zelaia Letamendiren bizi-ibilera

Joseba Intxausti

2003ko urte honetan Probintziaren Urrezko Domina hiru gipuzkoar leinargiri ematea erabaki du Gipuzkoako Foru Aldundiak. Horietako bi Jose Maria Setien gotzaina eta Iñaki Gabilondo kazetaria ditugu, noiznahi komunikabideetan ageri izan direnak eta denontzat ere ezagunak. Hirugarrena, ordea, Juan Zelaia Letamendi, ezaguna dugu, noski, baina ez du izan beste bi lagunen oihartzun mediatiko bera, lana eta biziera ere pribatuagoak izan dituelako.

Hortaz, ondoko lerro hauek betekizun bikoitza dute: lehenik eta behin, gure herritar honen nortasunaz zenbait zertzelada pertsonal biltzea, eta horrekin batera, Zelaia jaunaren gure herriarekikoak gogoraraztea.

1. Haurtzarotik gerratera (1920-1936)

Juan Zelaia Letamendi jauna -lagun eta ezagun askorentzat “Joanito”- Oñatin jaio zen, 1920ko abuztuaren 29an. Bataio-agiriak dioenez, nekazaria zuen aita. Sortzez baserriko semea da Juan, Oñatiko Zañartu Auzokoa, “Upaingoa” baserrian jaioa. Hain zuzen, lehenago batean “Zañartu” zeritzan baserri honek eman zion gaurko izena Auzoari berari ere.

1.1. Arbasoen familiartean

Gaurko Zelaiatarren leinuak erro luzeak ditu beren baserrian: “Zañartu” baserriko bizilagunak Zañartutarrak ziren beren jatorrian, baina Teresa, bertoko maiorazkoa zena, “Zelaa” baserriko Juan de Zelaia-rekin ezkondu eta hau Zañartura etortzean, baserri honetakoek Zelaia abizena hartu zuten, gaur arte. Horrela, jatorriz auzo berekoak dira, Zañartutarrak zein Zelaiatarrak.

Munduan ibilitako eta gaur egun ibili dabilen hainbat Zañartutarrek Upaingoan izan du bere jatorri hurbil edo urruna. Internet-en Txilekoak bilatzen baldin badituzue, ugariak dira han deitura horretako pertsonaia historikoak. Guztien artean sona handikoena Manuel Luis Zañartu Iriarte, Santiagoko Korrejidorea (1723-1782), baserri honetatik zuzenean ez irten arren, oñatiarra.

Harez gero eta garai hurbilagoetan ere, Zañartu Auzoak eta baserriak (esan bezala orain “Upaingoa” deituak) hainbat “indiano” izan dute Ameriketean. Eta Amerika zabalean bada, gainera, oso gertuko Zelaia eta Letamendirik ere: adibidez, Juan Zelaia omenduaren aitaren aldeko amonaren lau senide Txilera joan ziren, eta bosgarren bat Argentinara, eta aitaren beraren bi anaia ere bai Txilera.

1.2. Sendian

Horiek gorabehera, eta sendira bertara bilduz, bere gurasoen duen oroitzapena ezin hobea dela esan izan du Juanek. Jabier Zelaia Enparantza (1888-1947) eta Jazinta Letamendi Elortza († 1983) izan ziren beraren gurasoak. Aita-ama pontekoak aitaren aldeko aitajauna eta amandrea izan zituen, Martzelino Zelaia eta Petra Enparantza.

Martzelino etxeko aitajauna (†1933) azken Gerrate Karlistan soldadu ibilia zen (1872-1875), eta gerraoste hartan, izan zuen Oñatiko Udaletxean lekurik zinegotzi gisara; gerora, abertzale samartu ere egin omen zen. Semeak (Juanen aitak, alegia) bere aitarengan ikusitakoa harago eramango zuen herriko bizitzan, ardura nagusiagoak hartuz.

Jenobeba (j. 1914), Maxima (j. 1915) eta Arantzazu (j. 1918, umetan hildakoa hau) zaharragoekin, zazpi senideko familian laugarrena izan zen Juan Zelaia, gure omendua; hiru nesken ondoren, lehen mutila beraz. Ondoren baina laster etorri ziren besteak: Nati (1923-1977), Joxe (j. 1925) eta Maritxu (j. 1927). Gaur egun, senide biziak Upaingo eta Zelatua baserrietan, Oñatiko Artzelus-enean edo Bilbo eta Donostian bizi dira.

Familia abertzalea zen Jabier Zelaia eta Jazinta Letamendirena, eta horrek bere ondorioak izan zituen, senar-emazteen bizitzan, familian bertan eta herrian ere. Oraingoan, ordea, jeltzale bezala, eta Errepublikak ekarriko zuten hauteskundeetan Alderdi jeltzaleko hautagaien buru zelarik.

Bat-batean, herriko agintean eta Euskal Herriko hainbat ekimen politikotan parte hartzera deitua gertatu zen aita: 1931-1934etan eta azken urte honetako dimisio-ondoko parentesi labur baten ondoren, 1936an (otsaila-iraila) Oñatiko Alkate izan zen Juan Zelaia aita. Aldi berean, Estatutuaren aldeko Alkateen artean aurkitzen dugu Jabier Zelaia. Errepublikako urte haietan, ageriko pertsonaia politikoa izan zen, beraz.

Familia horretan eta ingurua horrela mugitzen zen bitartean, bertatik bertara urratu zituen bere eskola-bideak: urrutira gabe, lehen ikasketak Auzoko Eskolan egin zituen, Zañartun bertan; ondoren, Batxilergoa Oñatiko marista eta agustindarren ikastetxeetan ikasi ahal izan zuen (1930-1935), azkenik Batxilergoko seigarren urtea etxean ikasi eta azterketak bere kontura Gasteizko Institutuan eginez (1936). Zientziak eta matematikak izan zituen gairik maiteenak, gramatikak eta letrak batere gogoko ez zituen bitartean.

2. Gerra-inguruko pasadizoak (1936-1943)

Euskal Herriko sendi askotan bezala, Zelaia-Letamenditarrean ere 1936ko Altxamenduak ondorio larriak ekarri zituen. Oñati erreboltatuen menpe erortzeaz zela, Jabier Zelaia Alkateak ihes egin behar izan zuen, familia baserrian utzita, eta Txilerako bidea hartu.

Hemen gelditutako ondasun eta familiaren gain, iruditu zitzaizkien erabakiak hartu zituzten altxatuak. Komandantzia militarra deitutako ama lagunduz aurkeztu behar izan zuen Juanek ere, militar altxatuen eta herritar zenbaiten aurrean: militarrek ama Gipuzkoatik ateratzera behartu zuten. Etxetik bakarrik irten eta haurrei herriko plazan adio esatean, itzultzeko itxaropenik gabe agurtu omen zituen seme-alabak. Ezer gabe zegoen arrebari bidaiarako diru zerbait anaia dendariak eman zion.

Egun haietako larrialdi eta izuaren ondorioz, ilea erabat galdu zuen amak, eta halaxe geratu zen, burusoil, hurrengo 18 urteetan. Hala ere, urrunago gabe Altsasun geratu ahal izan zen ama, zorionez, eta deitura berekoak baina senitartekoak ez ziren Zelaia Tabernakoekin egon zen bizitzen han, Bilbo jausi eta berriro etxeraterik izan zuen arte.

Bien bitartean, sei seme-alabak gurasorik gabe geratu ziren Upaingoan. Baina "Junta de Confiscación" deituak ondasunak bahitu zizkien: etxeko higikorak lehenengo (beribila, bizikletak, irratia, eskopeta eta jantziak), eta etxea bera, gero. Suertez eta behin-behingo bertan bizitzen utzi zien seme-alabei. Pila-fabrika, berriz, "Tudor" enpresari (lehiakideari, alegia) eman zioten.

Esan bezala, senarra eta aita Txilen zegoen, eta bost urte geroago bakarrik (1942) itzuli ahal izan zen, itzulera-baimenaren truke 150.000 pezeta ordainduta. Badaezpada, pare bat hilabete Donostian pasatu zituen aitak, harik eta Oñatiko buru karlista ezagunenak hiriburuan ikustatu eta herrira itzul zedila adierazi zion arte. Ondoko hilabeteetan, ondasunik larrienak behintzat berreskuratzeko modua izan zuen orduan aitak (1943), eta bere enpresa-lanari heldu zion berriro, aipatuko ditugun enpresetan.

Eta zein izan zen Juan Zelaia Letamendi gaztearen ibilera Altxamendu ondoko hilabeteetan?

Gerrarako azken soldadu-deialdian sartu zuten Juan Zelaia, eta 1938ko urritik 1939ko abendua arte bete behar izan zuen bere soldadutza, lehenengo Alcalá aldean eta ondoren Katalunian. Gazte ikasleei eman zitzaizkien erraztasunez baliatuz, zerbait aurreratu ahal izan zuen bere itzulera, eta Bilbon

jarri zen ikasten. Bertako Injinerutza Eskolan burutu zituen Goi-
lkasketak, 1947an, doktoretza lortuz.

Hogeita zazpi urte zituen: une ona, noski, lanbide jakin bati
heltzeko.

3. Aitaren arrastoan (...1947)

Euskal baserrietako ondoko semeek mundurako beren
irtenbide pertsonala Elizan, Armadan edo Ameriketara aurkitu
ohi zutela esan izan da. Industri Iraultzaren ondoren besterik ere
gehitu zitzaizen horiei: eraikuntza eta etxegintzarena, adibidez.
Zelaiatarren kasua ere horrelakoa da, eta baserri-nekazaritzatik
kale-industriarako ibilbide horretan Juan da, Upaingoan, bere
aitaren ondoko kate-begia. Baina horrek, kontatzekoa den bere
historia du.

Jabier aita izan zen Upaingoa baserria eta bertako familiartea
lantegi berrietara eraman zituena, lanbideetan bezala etxeko
ekonomian eta senitartearen prestakuntzan. Juanen aitona
Martzelinoren garaietan huts-hutsik baserria zen Upaingoatik
industri enpresak sortu, sustatu eta gidatzen Jabier Zelaia aita
hasi zen.

Hasteko, Jabier aitak baserriko ikasketa formalak egiteko
aukera izan zuen Zizurkilgo Fraisoren Aldundiak sortutako
“Nekazari Eskolan”. Bertan ikusi eta ikasitakoek ekimen
berrietarako ideiak eman zizkieten Jabier-i, eta ikasketak
bukatzean, baso-ustiapenari ekin zion: basoak erosi, basoak
saldu, egur-ikatzatza egin, trenbideetarako trabesak egin, etab.

Hogeita bi edo hiru urte zituela, herri-lanetan sartu zen, bada,
Zelaia aita, kamino, bide, trenbide, ur-ekartze, eta antzekoetan.
“Javier Celaya Empanza” zeritzana izan zuen aitak esku-eskutik
eramandako enpresa, bertako kudeatze-ardura bere bizkar
zuela. Hortik hasita eman zituen hurrengo pausoak: adibidez,
San Prudentziotik Oñatirako trenbideko lanak (1923), Gasteiz-
Lizarrakoak, Valentziakoak (Hidroeléctrica Española-rekin), etab.
Horietan jasotako eskarmentua erabakigarria gertatuko zitzaion,
gera-aurrean bezala haren ostean ere.

Dena den, aldi berean, bazkide gisara hartuko zuen parte
aitak “Celaya y Empanza” zeritzan bigarren enpresa batean,
Pedro osaba eta Migel lehengusu Enparantzarekin batera.
1920an edo sortu zen Sozietate hau, Oñatin zegoen beste lantegi
baten produkzio “katea” osatuz, goardasolak egiteko. Espainian
aterki-fabrikarik ez zegoela eta, aterkiak egiten hasi zen sozietate
hau: Juan Garai-ren Oñatiko lantegiak egiten zituen aterki-
egiturak (kirtena eta parte metalikoa), eta “Celaya y Empanza”-

ren egitekoa zen egiturak oihalez jantzi eta aterkiak merkatura ateratzea. Hamarren bat urtetan jardun ondoren, ikusi zen produktuak mozkin-tarte oso hertsia zuela.

Geroko Cegasa-ri bidea irekiko zion aldakuntza etorri zen orduan (1933), aterkiena utzi eta beste zerbaiti heltzean.

Etorri berria zen Alemaniatic, aitaren eta Enparantzatarren Txileko lehengusua (Urtzelai); Alemanian egon berria zen lanean, eta bueltakoan bide batez Oñatin egin zuen egonaldi bat. Hori izan zen produktu berria hautatzeko parada: pila-fabrika batean ibilia zen lehengusua, eta bazekarren, horretan, eskarmenturik. Bestalde, Oñatiko argindar-zerbitzua 1931n Udalak hartu zuen bere esku, Jabier aita Alkate zela, eta udal zeregin honetan Elias Galdos Perito Elektrikoak (koinatua bera) izan zuen ardura teknikoa.

Indar-produkzioaren hau ez zen, hortaz, guztiz arrotza Alemanian trebatzen edo Oñatin Udalarentzat lanean ibili zirenentzat, eta guztiaren ondorioz, aterkien orde zilik ekoiztea erabaki zuten “Celaya y Empananza”-n.

Gerra-ostean, Aita erbestetik itzuli bezain pronto, eraikuntzako “Javier Celaya Empananza” enpresa hark bere lanari ekin zion ostera, lehenengo Zañartu auzoko baserritarrekin bideak egiten, geroxeago Legazpin Patrizio Etxeberriak eraiki zuen San Ignazio auzo berriko lanetan, eta azkenik Bilbo aldean eta Santurtzin, hasteko betiere lehendik zituen langileekin.

Gerra-aurrean bezala orain, berorren ondoren, bigarren enpresa ere izan-berrituta ageri zaigu: “Celaya y Empananza” zena “Celaya, Empananza y Galdos” bezala hasiko da berriz lanean, izan ere Elias Galdos Arrazola izango baita abiarazitako enpresako bazkide berria (hain zuzen, Juanen koinatua, eta Eli Galdos Gipuzkoako Aldun Nagusi ohiaren aita). Horra, beraz, “Cegasa” izen-laburdura osatuta: **C**elaya + **G**aldos + **SA** (1943).

Esan bezala, lau urte geroago bukatu zituen bere goi-ikasketak Juan Zelaia jaunak; baina hain zuzen urte hark ekarri zuen galera handi bat familiara eta enpresetara: ustekabea, peritonitis batek eraman zuen Jabier Zelaia aita. Zenduak ez zuen hutsune makala utzi!

Horrela, bada, aitaren lanei Juanek eman behar izan zien halabeharrezko jarraipena. Bilbon jarraitu zuen, beraz, eraikuntzako Enpresaren bulegoetan, Hirian bertan, inguruetan eta erbestean ere eraikuntzan jardunez (1968an edo enpresa itxi zen arte), eta aipatuko ditugun beste sozietateetan ere modu batera edo bestera parte hartuz.

Baserrian sortua, hirian ere luzaro bizi izan da Zelaia: Bilbon hogeita bosten bat urte (1940-1965) eta Gasteizen, gero (1965...), betiere Arabako Lautadako Larraintzarren bizialditxoak eginez eta Oñatiko asteroko (edo eguneroko) egonaldiak ere baztertu gabe.

4. Enpresa-taldean (1947...)

1947az geroztik, Zelaia Letamendi jauna batez ere enpresa-gizona izan da. Hor nekatu da, hor izan ditu buruhausteak, hortik jaso du eguneroko ogia: batzuetan diruak irabaziz, bestetan diruak galduz. Ogibidea hori izan baldin badu, bere gizabidea balio eta atxikimen zabalagoetatik begiratuta eratu du. Horrek ukan dituen ondorio guztiekin: frankismoaren garaietan, adibidez, inguruko mehatxuak saihestearren, hirutan erbesteratu beharrean aurkitu zen.

Gidatu duen enpresa-taldean bandera-ontzi bilakatutako Cegasa da (garai batean "Tximist" pila-izenez ezagunagoa) hemen berehala aipatu behar dena. 1956an hartu zuen Juan Zelaia bere ardurapean enpresa honen kudeaketa, eta ordudanik bere horretan jarraitu du, gaur arte.

Herri eta industri sektore ezberdinetan izan du eskurik Zelaia Letamendi jaunak, lehen urrats haiek ezagututa bakarrik espero izango ez ziren eremutan, gainera.

Hurbilagotik eta oso bere eskutik eramandako beste bi bederen ekar daitezke hona: *Tuboplast Hispania* (1964...) eta *Hidronor* (1973-2001...). Azken hau, ekologiarekin zerikusi zuzena izan duena, orainsu utzi berria du; Tuboplast-ek berreraketa handia bizi izan du ia 40 urteko bere bizialdian, batez ere azken bospasei urteotan, Gasteiztik Miñora pasatzean. Pauso adierazgarria da hori bera, tartean egon diren beste batzuekin batera, Enpresa-Taldea Euskal Herrian ongi erroiturik izateko eta erronka berriei aurre egiteko.

Zelaia jaunaren jarduera industrialia batez ere Euskal Herrian egon da lekututa, baina erbestean ere bai: aipatzekoak dira Espainia, Frantzia, Ingalaterra, Portugal, Estatu Batuak, Txile, Argentina, Mexiko eta bestetako enpresa-ekimenak, egon direnak eta daudenak.

Azpirarratzekoa da hemen, lantegi bakoitza bere barrutik eten gabe itxuraldatuz joan izan dela, eta era berean baita enpresa-taldea ere; guztiz ardatzak izan diren enpresa kasik sinbolikoen ondoan, gaur bai eta bihar ez, orain honela eta bihar bestela egon diren enpresa txiki eta handiagoak sortu eta utzi izan dira.

Nazioartean ere industriara eta bestelako enpresetara osorik eman den gizon honek ez du erbestetu bere burua Gipuzkoatik eta Euskal Herritik. Beti jakin du erroak non zituen. Horregatik, enpresa-gizonetan nekezago aurkitzen den beste alde gizatiar bat ere ekarri nahi nuke hona, zenbateraino izan den unibertsa eta nola izan den, aldi berean, hemen bertokoa erakutsiko baitigu. Juanen kultur zaletasunaz ari naiz.

5. Munduko kulturaren arrastoan

Juan Zelaia ez da izan kultura jaso konbentzionalaren langile sortzailea, ez arte eta ez zientzietan, baina hartzaile eta gozatzaile kritikoa bai. Adibidez, etxeko liburutegian edo pinakotekan geratu zaizkio bere kultur ohituren aztarnak, gaztarotik hasi eta gaurko egunak arte. Maitea izan du euskara, euskal musika eta pintura, baina geureari so egiten zion aldi berean ibilera luzeak egin ditu kultura handiei begira ere, irakur zaletasun bizi batek eztenkatuta.

Mundu klasiko greko-erromatarra Zelaiarengan izan duen lekua deigarria da, Grezia eta Erroma elkarren ondoan begiratu. Ez zaizkio falta izan olerkariak (Virgilioren *Eneida* edo Horazioren *Odak*); baina ez da olertia izan bere eremu maitatuena. Greziako pentsamenduak edo bi herri klasiko haietako historiaz interesatu da gehiago.

Bi mundu klasiko horietan, izenak ugari dira Zelaiarenean: Xenofonte bere *Anabasia*-rekin, e. b., edo Prutarko, bere *Bizitza parekideak* dakartzala. Historia eta biografien hau izango da maitekero eta interes handiz begiratutako alor bat.

Platon eta Aristoteles ez ditu arrotzak izan, eta benetan maite eta miretsi izan ditu Sokratesen “maieutika” eta Platonen “elkarrizketak”. Adi-adi begiratu ditu pentsamendu politikoa platondarra edo haren teoria eta etika sozialak. Ontologia, ordea, bere interesen artean askoz alborago geratu zaio Zelaiari, eta Aristotelesen *Metafisika*-ra ez da itzuli izan Platon-en *Errepublik*a-*ra* behin eta berriz egin duen bezala.

Erroman, giza izaeraz eta burubideaz zihardutenak bilatu zituen. Senekak († 65), gizon eta pentsatzaile bezala, edo Marko Aureliok († 180), agintari filosofo gisa, erakarri zuten Zelaiaren arta (*Pentsamenduak*). Beraien irakurle arretatsua izan da inoiz, Teofrasto († c. 287 a. C.) edo Epikteto († 125 p. C.) grekoekin batera.

Greziar eta Erroman bezala bestetan ere, irakurketa hautatuak egin ditu, zituen galdera eta kezka nagusiei erantzunak bilatuz, kulturen barne-osotasuna xerkatuz baino gehiago. Behin eta berriz irakurritako hainbat liburu du Zelaiak, giza zientzietan,

filosofian, historiografian... Maite dituen gai eta autoreak birritan eta hirutan ikuskatzeko ohitura izan du. Lan intelektual dogmatikoarekin kritikoa izan da (eta da), eta ez ditu maite izan sistema oso eta itxiak, erantzun bakarrean orori ihardetsi dioten pentsamendu sakratuak, erlijioso nahiz laikoak. Hala ere, hauetaz ere interesatu da.

Zibilizazio eta inperio handien eraikuntza, loraldi eta erorikoak biziki erakarri dute Zelaiaren arreta, gertaera sozio-politiko orokorrak ulertu nahiez, eta prozesu horietan parte hartu zuten protagonisten giza esperientzia pertsonalak ezagutzeko asmoz. Gertabide konplexu haien historiak barrutik erakarri dute, eta ez dira gutxi irakurri dituen Erroma eta Greziako historia modernoak.

Egipto, Pertsia eta Ert-Ekialdeetako historiak atseginez miatu ditu, zibilizazio handien sorrerak ezagutu eta berorien ondoriozko ibilerak ulertzeko.

Badirudi aldakuntza handien une historikoei arreta gehiagoz erreparatu diela, eta ez gaitu sobera harritu behar Tertulianorekin (†240) ere topo egiten badugu (*Jentilen kontra*), jentiltasunetik kristautasunerako pasaera hartako garaiak nolakoak izan ziren jakiteko. San Agustinek landutako gizarte-historiaren azalpen teologikoak (*Civitas Dei*-rekin), ordea, gutxiago erakarri zuen, nahiz eta honen *Ideario* bat baduen etxean. Erromaren erorikoa argitzeko Montesquieu-ren *Considérations sur les causes de la grandeur et de la décadence des Romains* ageri da liburutegian.

Garai berrien atarian, Frantziako Iraultzaz irakurketa franko egin du, besteak beste Michelet-en Iraultzaren historia bere hiru liburuki handietan irakurriz.

Aro Modernoko Inperio kolonialen sorrera-arazoak presente daude Zelaiaren irakurgaietan. Horretan, Amerikako konkista espainola interesatu zaio hurbilagotik, eta horretan Las Casas, Francisco de Vitoria edo Suárez irakurgai maitatuak izan ditu. Eta gertakariak, gizabanakoaren esperientzietatik ezagutzeko joera ezagunean, besteak beste Kolon eta Cortés-en biografiek erakarri dute. Beste alde batetik, iruditeria kolonialistaren sortzaile gisara, poesiari ere eman zion begiraturen bat: Camoens-en *Os Lusíadas*-en kasua da hau.

Disidentzia kritikoak erakarmen handia izan du gure irakurlearen gain, sistemaren barruko disidentziak eta sistemarekin hautsi dutenenak. Literaturara gatozela, lehenengoan artean jar genitzake Shakespeare edo Quevedo (*Política de Dios y Gobierno de Cristo*); badirudi azken honekin bereziki hurbil sentitu dela Juan Zelaia, berorren kritika sozio-

moralaz, politikoaz eta satira literarioaz libreki gozatzuz. Quevedoren obra guztiak eta hainbat edizio txiki ageri da etxeko liburutegian. Era berean, Unamuno ere irakurrita du, baina tarteko desadostasunek urrunago utzi diote idazle bilbotarra. Horrela, maiteago du Baroja idazlea, katedratiko eta filosofo hura baino.

Europa modernoko historia erlijiosora gatzela, Erasmo kritikoaren ondoan, Luter edo Calvin haustaileak hobetsi dituela esango nuke. Irakurri, Luter-en biografia onenak irakurri zituen bere garaian, eta oraindik ere Grisar josulagunaren obra sonatua (*Martin Luther. Sa vie et son oeuvre, 1931*) liburutegian dago.

Gizartean erakundeztatu diren ideologia utopikoa ez ditu batere atsegin Juanek, muntaia horiek tranpa ustela direla pentsatu baitu. Horregatik, maiteago izan du 1517ko Luter kritiko librea, 1555eko luteranismoak lortu zuen sagarapen instituzionala baino (Augsburg-eko Bakeko "cuius regio, eius religio" hura baino).

Erljioaren hau gazterik hausnartutako mundua izan du, gerratean edo berehalako urteetan. Jesus Nazaretokoaren eta Mohamet-en biografiaren bat baino gehiago irakurri zuen orduan eta hurrengo hamarkadan. Ez dira pasaerako obratxoak; horren lekuko daude oraindik 1950.etan erositako G. Ricciotti-ren funtsezko obra mardulak: Jesus eta San Pablo-ren biografiak, eta interes bertsuarekin irakurritako *Israel Herriaren Historia*. Iturriak ere gogoan izanik, Biblia eta Koran-a etxean egon dira kontsulta eta irakurketa hautatuak egiteko, jarraian dena irakurtzeko baino gehiago.

Boteredunen biografiek leku zabala izan dute Zelaia jaunaren irakurle-historian, eta azpimarratu behar da hau. Boterearen jokamolde eta trikimailuak ez ezik gizakia bera ezagutzeko balio izan diote biografia horiek. Etxeko liburutegira ekarri eta irakurritako biografien artean daude gutxienez, aipatutakoez gain, ondoko hauenak ere: Alexander Handia, Zumarraga, Maria Stuart, Felipe II.a, Olivares Konde-Dukea, Napoleon, Fouché, Disraeli, Lenin, Mannerheim Mariskala, Stalin, Churchill, Mao, Kennedy eta beste zenbait.

Eta hor ukitzen dugu bizitza osoko galdera handi bat: Boterea nolakoa eta zertarako? Boterea norentzako? Nola erabili izan da boterea gizartean, inperio handietan, herrien artean? Zer izan da gizakiak hor bilatu duena, eta nola jokatatu izan du?

Hori bezalako giza arazo edo galderak elkarren jarraian otu zaizkio Juan Zelaiari: Monoteismoarekiko galdera eta erantzun historikoak, gizakiaren eboluzio eta bilakaerari dagozkionak,

gizarteko barne-antolamendua... horiek izan dira irakurle bezala izan dituen galdera handiak. Hor sartzen dira kultura handiekiko aipatutako informazioak, Teilhard de Chardin edo Bertrand Russell, Barandiaranen lanak edo Ortega y Gasset-en *La rebelión de las masas*, azken hau Zelaiari oso bereziki interesatu zitzaiona.

Oro har, *Literatura* urruntxo gelditu zaio Zelaiari: poesia edo antzerkia arrotz samarrak izan ditu, eta eleberritan hainbat autore irakurri badu ere (Cervantes, Dickens, Dostoiowski, Steinbeck, Van der Meersch, Galdos, Gorki, etab.), ez du izan hor zaletasun handiagorik.

6. Euskal kulturaren bila eta zerbitzuan ere

Esan gabe doa: Zelaia jauna gerra-aurreko gaztea da; gerra amaitzean artean bete gabe zituen hemeretzi urte. Bere nerabezaroen aitaren lana ikusi du, eta gisa berean baita Errepublika-urteetako ekimen eta itxaropenen oihartzuna jaso ere, harik eta gerratea gainera etorri zitzaion arte.

6.1. Euskal kultur aurrekariak

Gerra-aurreko gazte gehienek bezala, ez zuen izan lkastolara joateko aukerarik, eta Oñatiko Udaletik bultzatutako eskola elebiduna (1931...) ez zen iritsi berarenganaino, orduko eta zerbait geroagoko belaunentzat ezagutu ditugun ondorioekin: ez zuen eskuratu ahal izan euskarazko irakurketarako erraztasun eta ohitura eskolaturik. Hala ere, etxean eta Oñatin bizi izandako euskaltasunak segurtatu zion jatorrizko bere euskaltasuna. Bestalde, esan ohi duen bezala, zuberera salbu, gainerako euskalki mintzatuak eragozpen handirik gabe ulertu izan ditu, "batuak" lan gehiago eman omen dion arren...

Etxean bertan ezagutu zituen jeltkideen *Euzkadi* eta Aitzol-Montoya-ren *El Día* egunkariak; baina, artean, irakurri ezer gutxi, ordea.

Handik aurrera, oso berea izango du "Zabalkundea Bilduma", hainbat titulu jakingarriekin: Campión-en *Blancos y Negros*, Narraciones *Baskas*, *El Genio de Nabarra* edo *Don García Almorabid*, Barandiaran-en *El hombre prehistórico en el País Vasco/Euskalerra* ko leen gizona, Aitzol-en (J. de Urkina) *Democracia en Euzkadi*, J. Aldadill-en *Castillos medievales*, Tx. Agirre-ren *Garoa*, Lekuona-ren *Literatura oral euskérica*, Thalamas-en *Aspectos de la vida profesional vasca*, etab.

Gerrate eta gerra-osteko basamortua pasaturik, gaur egun ere bilduma hartako hainbat ale Upaingoan dago. Segur aski, beste liburu batzuekin gertatutakoaren antzera, hauek ere horma-

zulo batean gorde eta zaindu ahal izan ziren, baserritik bertatik kanpo, beste batzuk minez eta dolorez sutara joan ziren bitartean.

Euskarazko irakurgaien artean *Garoa* eleberria izan zuen maiteena, obraren kalitateaz gain ezaguna zuen munduaz ari zelako ere bai, uste dut.

Gerraostean, lehen hamarkadetan, Buenos Aires-eko *Ekin* argitaletxearen lanak jasoko zituen, bere gerra-aurreko irakurketei segida segurtatzeko. Zetozenean bazetozen, eta ez zen aukera galdu behar, ahal zelarik behintzat.

6.2. Kulturaren babesle

Dena den, urruntasun edo kidetasunak gorabehera, euskal kulturarekiko konplizitateak ez dira mugatu izan zaindu dituen irakur zaletasun horietara. Zelaia jauna euskal kulturaren eta euskararen alde bere patrika astindu duen horietakoa da, orain gutxi arte mezenas isil eta ezkutua, eta orain ere, legezkoak betetzeko ez bada, sobera esaten ibili gabe diharduena. Zoritxarrez, ez da izan bere iragana gordetzeko egunkari pertsonalik idatzi dutenetakoa, ezta egindakoen edo izandako ekimenen albistea paperetan gordetzen batere zalea.

1960.etan, Ikastola bere urrats berriak ematen hasi zenean, Donostia, Gasteiz, Oñati edo Agurainen hartu zuen parte, lehen egiturazko gastuetan lagunduz (eraikuntza, soldadak, tresneria, etab.). Laguntzak hainbat kasutan urtez urte eskainitakoak izan arren, ez da samurra berorien egutegi eta garrantzi osoa ezagutzea.

1970etako lehen urteetatik hasita, *Jakin* aldizkari eta liburuei lagundu zien, noizbehinkako beharrei erantzunez edo aldizkakotasun formalagoren batekin. UEU sortu zenean ere (1973), Iparraldeko lehen ekitaldietan bere laguntza eskaini izan zuen, euskarazko goi-kultura laguntzea premiazkotzat ikusirik. Zerbait geroago, 1977an, UZEIk bere hiztegitantzari heldu behar izan zionean, lehen fundatzaileen artean egon zen.

Euskal irakaskuntza edo ikerkuntza mundutik bestelako kultur alorretara gatzozela, esan dezagun oso maite izan dituela bestelako azalpenak ere: musika, margolanak eta kirola aipa daitezke berezikiago. Oñati edo Aguraingo txistulariak, adibidez.

Kiroletan estropadak, txirringularitza eta mendigoizaletasuna ezin dira ahantzi. 1974ko "Tximist" Espedizioak jarri zituen Everest-era 1980an iritsi zen bigarren ahalegin arakastatsua euskal oinarriak. Bietan egon zen babesle gisa CEGASA (lehenengoan bera bakarrik, eta bigarrean, beste hainbatekin elkartuta).

1994an, *Kulturaren Aldeko Euskal Fundazioa* deituko zenaren Egitasmoaren gidaritzan hartu zuen: handik hona Fundazioko Patronatuko Lehendakaria da. *Sortze-Gutunak dioenez*, “hizkuntzaren eta kulturaren defentsa, sustapena eta garapena” dira beronen xedeak, eta “betiere euskararen eta euskal kulturaren ezagutza eta erabilpenaren, transmisio eta zabalkundearen, defentsa eta garapenaren alde lan eginez” jardun behar du.

7. Atzera begiratuan

Hau izan da gipuzkoar honen bizi-ibilaldia, Oñati eta Gipuzkoatik hasi eta Bilbo eta Gasteizeraino, eta hemen bertotik munduraino.

Sormenaren grina egon da tarteko, produktu eta zerbitzu berriak asmatu edo hautatuz, eta ondoren beroriek ekoizteko enpresa-modu berriak ere eratuz.

Gizon-emakume lankideek leku behinena izan dute Zelaiaren ahalegin horietan: lantalde iraunkorrak izan ditu, bizi-aldia osoa bere ondoan eman dutenak hainbat eta hainbat. Ideia eta lantaldeen gidari ona izan dela susma daiteke.

Ukitu dituen sektore-eremuak ezberdinak izan dira, baina sarritan baita elkarren osagarri ere; maiz batak bestea iradoki eta ekarri du, ekoizpen industrialetik zerbitzuetara jauzi eginez, esate baterako.

Eremuak bezala herrialdeak: batean hasi eta beste hainbatetan jarraitu. Euskal Herria izan du abiapuntu eta helburu, baina nazioarte zabalean egon eta ekiten ere asmatu du.

Negozioetan lortutakoek ez dute gure errealitate sozial eta kulturaletatik urrundu; berauek hurbiltasun sentitu batean bertatik bertara begiratu ditu, maitatuz eta sufrituz, gizakiaren galdera sakonenak ere gogotan zituen aldi berean.

Euskal Herrira eta mundura irekita jardun duen giputza izan da Juan Zelaia Letamendi.